

Jose Mari Agirre

EAJKO KIDEA

Euskal ekonomiaren abiada

EAeko ekonomia oso osasuntsu ibili da azken hamabi urteetan. Batez beste, %4 igo da errenta urtero. Horrelako aldarerik ez da izan, ez Euskal Herrian ez beste naziotan. Europako mandatariek Lisboako estrategia deituriko helburua aldarrikatu zuten Portugalen. Alegia, Europar Batasuneko (EB) kide bakoitzak %3 igo behar zuela bere ekonomia urtero. Jomuga hori jarri zioten elkarri, ongizatearen eta hazkunde jasangarriaren eredu moduan. EAEko ekonomiak eta Nafarroakoak aise gainditu dute maila hori. Lehena %4 hazi zen eta Nafarroakoa %3,5 epealdi berean. Hego Euskal Herriak erabat betetzen du Lisboako estrategia. Iparraldeko ekonomiaren hazkunde zehatzik ez dakigu, baina euskal ekonomiak, oro har, betetzen du Lisboako helburua.

Ekonomiaren gaitasuna neurtzeko, biztanleko Barne Produktu Gordina (BPG per kapita) erabili ohi da, metro gisan. Hau da, eremu bateko biztanleek estatistikoki sortzen duten aberastasuna. 2007ko amaieran euskal ekonomiaren aberastasuna EBkoaren –batez bestekoaren– gainera dago.

Biztanleko BPG 100 izanik, 130 izango litzateke euskal ekonomiaren aberastasuna. Honek esan nahi du EBko batez besteko baino hogeita hamar puntu gorago gaudela.

Ekonomiaren arrakasta ere lan merkatuarenetik neur daiteke. Bikote hau elkarrekin dabil, BPGk gora egiten badu iraunkor, lan gehiago sortuko da eta alderantziz. Esaterako, langabezia



JOSEBA OLALDE

hogei puntu jaitsi da eta 360.000 enplegu sortu dira Hego Euskal Herrian, hamabi urteetan. Esan behar da hala ere, lanpostu horietako banaka batzuk finakoak izan direla eta gehienak aldi baterakoak.

Euskal ekonomiaren lehiakortasun indarra aipatzerakoan, badago beste ezaugarri bat ere. Lehenago estatuko merkatuan saltzen genuen gehiena, eta orain Europakoan. Gure esportazioak –estatutik kanpo– bikoiztu dira hamabi urte hauetan. Kanpoan saltzen ditugun ondasun eta zerbitzuen %45 estatuko merkatutik kanpora doa eta %55 estatuko merkatura. Esan nahi baita

Europako merkatuak estatukoak ia adina eragiten diola gure eskaintza ahalmenari. Gauzak aldrebesten hasiak direla dirudi ordea: eraikuntzaren gainbehera, higiezinaren porrota eta mailegu hipotekarioen zaborrak aipatzen dira errudun bezala.

Datorren urtean aurreko urteetan baino gutxiago haziko gara. Hala ere, hiru inguruko hazkunde tasa aurreikusiten da datorren urterako. Ekonomia %3 igotzen bada ez dago krisi aldirik. Lehen baino gutxiago hazten ari da, baina bi edo hiru igotzen den bitartean ez dago krisirik, geldotzen joango bada ere. Krisialdian sartzeko ez-hazkunde edo hazkunde negatiboa behar da. Beharbada krisialdi baten atarian egon gaitezke, baina ez 2008an. Urte honetan iaz baino gutxiago igoko da gure ekonomia. Behi gizenen ondoren behi meheagoak etorri omen dira Joseren ametsetan. ■



Krisialdian sartzeko
ez-hazkunde edo hazkunde
negatiboa behar da.

Krisialdi baten atarian egon
gaitezke, baina ez 2008an



TXANDAN

Sustrai Colina



Bizi naizen herrian dena da posible.

Zigarrokin itxurako erretzaile fanatikoek ez dute txintik esan tabernan erretzeko debekuaurrean. Inork ez du ahotsik altxa, inork ez du errudunik seinatu. Hitz potoloa da errebeldia ezkerrean zer den ez dakien herri batean. Tabernara biltzen jarraituko dute, afalurreko *ricard*-a debekatzen dieten arte.

Bizi naizen herrian dena da posible. Marsellesa baino frantsesagotzat zenuena euskaraz hasi zaizu. Jator eta gozo aritzeko ez duela saiatu beharrik ohartu zara, berez-

Bizi naizen herrian (III)

koa duela, etxekoa. Hiru esaldi aski izan ditu zu lotsatzeko. “Zergatik ez

ote diot sekula euskaraz egin? Hau ez al zen ikastolaren etsai porrokatua?”

Bizi naizen herrian dena da posible. Gutxiak dakite non dagoen Lesaka. Gutxiagok nor diren Igor Portu eta Mattin Sarasola. Lesaka ez da Bera, eta Beran bukatzen zen kontrabandoa. Ibardinen hasten negozioa.

Bizi naizen herrian dena da posible. Hauteskunde kanpaina hasi da. Debekuak, lotsa, kontrabandoa eta negozioa. ■